

» **TELEGRAMA**

Ekainaren 26tik gozatu daiteke **Bilboko Kalealdia**: Bizkaiko hiriburuko kaleko antzerki eta arteen jaialdiak uztailaren 2ra bitartean ekintzaz beterik du egitaraua *STOP* Jazzarekin lotutako udako zitak hemen dira: uztailaren 1etik 5era **Getxo Jazz**, uztailaren 1ean Gasteizko **Jazzaharrean**, ekainaren 29tik uztailaren 1era Bermeoko **Jazzber...** eta Donostia eta Gasteizko uztailleko zitak falta dira oraindik! *STOP* Flamenkoa eta txalaparta uztartuko ditu **La Pulga** artistak Berrizen uztailaren 1ean, Elizondo plazan *STOP*

» **KONTZERTUA**

Amaiera argitsua



Montse Auzmendi

Bernstein eta Prokofiev-en obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Juarj Valčuha.

Bakarlaria: Jennifer Koh (biolina).

Gasteizko Principal Antzokia; ekainaren 16a.

Juarj Valčuha zuzendaria Eslovakiako Bratislavan jaioa da, 1976an.

Korear jatorriko Jennifer Koh biolin jotzaile iparamerikarra; Illinoisen jaioa, 1976an.

Joan zaigu aurtengo Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldia. Benetan denboraldi gozagarria izan da, eta era berean, luzimendu gehiagorekin jo zuten azken saioan. Osagarri guztiek sortu zuten jakin-mina: Juarj Valčuha zuzendariak, Turingo RAIren Orkestra Sinfoniko Nazionaleko zuzendaria hain zuzen ere, Jennifer Koh biolin jotzaile estatubatuarrek, oso txalotua bere jaioterrian, eta egitarau kuttunak.

Leonard Bernsteinen *Serenade* obrak, tinbrika zoragarria izateaz gain, badu barruko kutsu intelektual bat. Esaten da konpositoreak lan hau egin zuela Platonen *Oturuntza* irakurri ondoren eta,

horrela, Greziako bost pertsonaia ospetsuren maitasunari buruzko ideiak islatzen dira obraren bost mugimenduetan. Esan bezala, orkestrazio dotore eta delikatu du biolin eta orkestrarako maisu lan honek. Bakarlari gisa, Jennifer Koh biolin jotzailea aritu zen, eta publikoa zoratu egin zuen. Talentu ikaragarria du andre honek, eta jotzeko era biotuosistikoa, zalantzarik gabe. Halere, saio honetan, hotz utzi ninduen. Kapazitate tekniko eta, noski, interpretatzeko gaitasun aparteko horretatik ez ninduen gehiegi ukitu.

Saioaren bigarren zatian, XX. mendeko sinfonía zoragarrienetako bat oparitu ziguten Euskadiko Orkestrakoek: Sergei Prokofieven *5. Sinfonia si bemol maiorrekoa, op. 100* hain zuzen ere. Lan oparoa da alde guztietatik. Erritmika eroa, tinbrika guztiz distiratsua; obra disfrutagarria da goitik behera. Valčuha zuzendariak jakin zuen mugimendu bakoitzari berezko karakterea ematen. Lehenengo mugimendua, *Andantea* herroko eta noblea iritsi zitzaigun; bigarrena, *Allegro moderatoa*, aldiz, jostalari eta ironikoa; *Adagio* hirugarren mugimendu lirikoan ederki islatu zuten *crescendo* makabroa, eta azkenik, *Allegro giocoso* bukaerako mugimendua, koloretsu, erritmiko, eta Prokofievek hainbeste maite zituen disonantziez betea entzun genuen. Nabaria da Juarj Valčuhak eza gupen sakona duela Prokofieven soinu munduaz. Halaxe frogatu zuen saio eder honetan eta halaxe gozatu genuen. ■

